



San Martin eliza (Arrieta)

Eraikina

Deskripzioa

Elizateko plazaren erdian dago kokatua Arrietako eliz tenplua. Eraikina nabe luze bat da, bost zatitan banatua pilareei atxikitako zutabe toskanarren bidez. Horrek hegaletan sorrarazten ditu kapera altuak eta txikiak, baina oso erabilgarriak. Zutabeen gainean gangaren arku sortzaileak pilatzen dira. Ganga baitua (baída) da eta igeltserotzakoa da. Kapera handiak, estuagoa eta laukizuzena, nabeari ematen dio errematea. Ganga mota berekoa da. Hala ere, erdian laranja erdi bat dago zulatua, sabai-leihorako. Ezkerretara kapera bat ere badago bigarren tramuan. Kapera hau eranskin modernoa da.

Deskribatutakoaz gain, hegoaldera eta oinarriari begira elizpea dago. Plazari begira dagoen zatiak garrantzi handia du, hirigintza aldetik ere. Elizpe horretatik elizara sartzeko modua dago bi ateetatik -atzekoa ateburuarekin eta arrunta eta bestea aberatsagoa-. Plintoen gainean irmotutako pilastra landatutakoen artean garaitza-arku bat sortzen da, sarbidea puntu erdikoa duena.

Karrerapeari lotuta eta elizaren ontzitik banatua, dorrea dago. Inguru osoa menperatzen du dorre exentua, Libaoko mendixkaren goialdean egoteagatik. Dorreak bi zati ditu: alde batetik, fustea eta, beste alde batetik, kanpai-gela eta errematea. Lehenengo zatiak aparailu noblea du eta oso hermetikoa da. Gelak, ordea, zortzi baten forma du eta bao handiak ditu kanpaietarako horma-atal txikietan. Zortzi itxurako zatietan, berriz, flamerok daude. Kupula batez estalia dago eta horren gainean linterna bat dago. Kanpandorrera igotzeko eskailera lineala da, baita elizpera lotuta dagoen lehenengo abade-etxera ere.

Estiloa eta datatzea:

Deskribatutakoa hiru une eta estiloei dagokie. Zaharrena dorrearen fustea da; gotikoa da, XV. mendearen bukaerako edo XVI. mendearen hasierako. Beraz, Bizkaiko dorreerik zaharrenetakoa da. Elizaren gorputza XIX. mendean egin zen estilo neoklasikoan. Atxikitako kapera eta kanpandorrea, aldiz, XX. mendekoak dira, 1910ekoak hain zuzen ere. Kapera Acillona familiaren jabetzapekoa da (eta bertan ehortzita daude familia horretako kideak) eta kanpandorrea, berriz, familia horren dohaintza.



Altzariak

Erretaula Handiak presbiterioaren buru-horma okupatzen du. Egitura erraza du, koadrotxo erakoa. Bost kale ditu, bankua, bi solairu eta hauts-babesaz azpatutako gainalde mailakatua. Kaleak eta etxeak mugatzeko zutabetxo gotikoak eta frisetxo lauak daude. Bankuan, ordean, grutesko apaindura daramaten zutabeak daude.

Erretaulak bineta itxura du eta informazio historiko asko biltzen du. Bankuan apostoluen tailak daude (ez dago osorik). Etxeetan, berriz, Tourseko San Martinen bizitzari buruzko erliebeak agertzen dira. Honen makulua erdian agertzen da. Kalbarioa ere makulua da.


Erliebeak eta tailak mazoneriaren estilo berekoak dira, 1520 urte inguruko hispano-flandiara. XIX. mendean berriro margotu zuten. Horrez gain, erretaulak santutegia galdu du eta, alde horretan, aldaketa handia jasan du.

Sortzez Garbiaren eta Jesusen Bihotzaren gaur egungo erretaulak barrokoak dira, XVII. mendekoak. Dena den, askoz geroko polikromia batek hori estaltzen du, izandako beste esku-hartze batzuk aintzat hartu gabe. San Juan Bataiatzaileari dedikatutakoa 1677an ordaindu zen eta bestea, Andre Mari Arrosariokoari dedikatua, 1690ean polikromatu zuten.

Balorazio orokorra

Eliza 1820. urte inguruan eraiki zuten. Egilea, agian, Juan B. Belaunzaran izan zen, Galdamesko San Pedro elizan bezala: eraikina erabilgarria da eta hiri garrantzia du, elizatearen erdian dagoelako. Dorrea eskualde osotik ikusteko modua dago eta Erretaula Handia, aldaketak eta margotzeak gorabehera, Bizkaiko Behe Erdi Aroko eskulturari egindako ekarpen interesagarria da.

Testua: José Ángel Barrio Loza.



San Martin eliza
Arrieta.